



Conseil de Développement du Pays Basque
Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua

TRIBUNE / MINTZALEKUA

SOAK#2

(regards sur les années 2020 / 2020 Hamarkadari so)

Numérique :
Connectons nos bourg-centre !

Digitala :
Gure herri barneak konekta ditzagun!

par Paxkal INDO et Philippe ARRETZ¹

¹ Respectivement Président et Directeur du Conseil de développement du Pays Basque (CDPB/IEHGK)

Lehena Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren lehendakaria eta bigarrena zuzendaria (CDPB/IEHGK)



Conseil de Développement du Pays Basque Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua

C'est en quelque sorte la principale conclusion du diagnostic citoyen mené l'été dernier en Pays Basque intérieur, et devrait être un préalable au développement du très haut débit sur notre territoire !

Partenaire des 10èmes rencontres numériques de l'ANTIC, le Conseil de développement du Pays Basque avait organisé début juillet 2019 trois débats sur le numérique en Pays Basque intérieur. 120 personnes, de 7 à 77 ans, ont pris la parole à Barcus, Saint-Jean-le-Vieux et aux Aldudes. Toutes et tous usagers, toutes et tous devenus experts (parfois malgré eux) des problématiques de connexion sur leur territoire. Ancien réseau France Telecom en désuétude, et ses impacts sur le débit internet et la téléphonie; poteaux régulièrement abimés le long des routes; zones blanches 4G; coûts exorbitants des solutions satellites...

A l'heure du déploiement de la fibre (avec accès au très haut débit), la question de fond a été posée : **quels sont nos (vrais) besoins ?** Faut-il promettre la fibre à chaque maison, chaque ferme, pour répondre aux besoins individuels ? Ou faut-il se donner des priorités plus collectives pour répondre à la revitalisation de nos vallées et villages ? Cette seconde option nous apparaît prioritaire : en connectant chaque bourg centre dès 2020/2021, on donne la possibilité aux habitantes et aux habitants, aux artisans, aux agricultrices et agriculteurs, aux télé-travailleurs... de pouvoir se connecter depuis le centre de leur village. Mutualisée et moins coûteuse, cette option permet d'ajuster le réseau aux différents besoins, qui ne peuvent dépendre du même « tuyau ». Ainsi, certaines entreprises ont fait appel collectivement à des opérateurs locaux pour disposer d'un réseau fiable et régulier, adapté à leur besoin de développement.

Iaz euskal barnealdean egin zen herritar diagnostikoaren ondorio nagusia da neurri batean, eta gure lurraldean emari handiko sarearen garapenerako aitzinetiko zerbait izan beharko luke!

ANTIC elkartearren Digitalaren 10. Topaketetan partaide izan eta Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak euskal barnealdean digitalak bizi duen egoerari buruzko hiru eztabaia antolatu zituen 2019ko uztaila hastapenean. 120 pertsona, 7 urtetik 77 urtetarakoak, mintzatu ziren Barkoxen, Donazaharren eta Aldudeetan. Guztiak ziren erabiltzaileak eta guztiak beren lurraldean dituzten konexio arazoetan aditu bilakatuak (batzueta hala nahi gabe ere). Zaharkiturik den France Telecom sarea eta internet emarian eta telefonian dituen eraginak; bide bazterretan hondaturik izan ohi diren zutoinak; 4G gabeko zonak; satelite bidezko aterabideen gehiegizko kostuak...

Zuntzaren hedapenaren garaiotan (emari handia eskuratzeko aukerarekin), gai nagusia ageri zaigu : **zeintzuk dira (egiazki) ditugun beharrak ?** Zuntza agindu behar zaie etxe eta etxalde guztiei nork bakoitzaren beharrei arrapostua eskaintzeko? Ala lehentasuna eman behar zaio jokamolde kolektiboagoari gure aran eta herriei bizi berria emateko? Bigarren bide hori iruditzen zaigu lehentasunezkoa: herri barne guztiak 2020/2021etik goiti konektatuz gero herritarrei, eskulangileei, laborariei, telelangileei eta abarrei herri barnetik konektatzeko aukera ematen zaie. Partekatua eta merkeagoa da aukera hori eta «hodi» beraren mende izan ez litezkeen behar mota orotara egokitzeko aukera ematen du. Halatan, bada, enpresa zenbaitek taldeka jo dute tokiko operadoreengana sare segur eta erregularra, beren garapen beharrei egokitua ukан nahiz.



Conseil de Développement du Pays Basque Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua

On le voit bien, mettre en place un réseau génère un certain modèle d'aménagement pour nos territoires, ainsi qu'un modèle social de « vivre ensemble ».

Et pourtant, le développement de la fibre en France fait la part belle aux grands opérateurs, dont l'objectif est la massification des usages et la démultiplication de clientèles branchées sur le même réseau. Sans tenir compte de tous les aléas : bouts de ligne, zones blanches, connexions de mauvaise qualité... Avec une logique : les opérateurs privés se réservent les zones concurrentielles et rentables, et laissent à la puissance publique les zones moins ou non rentables.

A la logique de ces grands opérateurs s'ajoutent des pratiques numériques de moins en moins responsables : 80% de l'usage individuel à domicile est lié au streaming ! L'impact Co2 du numérique a dépassé l'aviation civile ! En terme de recyclage par exemple le monde de l'automobile est dix fois plus vertueux que le numérique. Nous pouvons l'affirmer : Le XXI^e siècle sera éco-digital ou le numérique pour tous ne sera plus !

Il est temps d'interroger en profondeur les usages et de développer des éco-pratiques, de la modération. Il est temps aussi d'investir massivement dans l'éducation à la citoyenneté numérique, à l'esprit critique sur le web, auprès des jeunes et des moins jeunes.

En fin d'année, des porteurs de nouveaux tiers lieux se sont réunis à Baigorri. Entre les démarches de Barkoxe Bizi, celle de Banca, et de bien d'autres encore, c'est toute une génération de femmes et d'hommes qui souhaitent développer des espaces collectifs, et concourir aux nouvelles dynamiques au cœur des villages ou des quartiers urbains. Et le « collectif », ici en Pays Basque, porte un sens fort !

Argi da, sare bat plantan emateak gure lurrealdeak antolatzeko eredu berezia sortzen du, bai eta «elkarbizitzaren» gizarte eredu jakin bat.

Halarik ere, zuntzaren garapena Frantzian operadore handien faboretan egiten da; haiek erabilerak metatu nahi dituzte eta sare berean bezero anitz bildu. Gorabehera guztiak kontuan hartu gabe, halere: linea amaiak, linea gabeko zonak, kalitate eskaseko konexioak... Guztia honako logika honekin: operadore pribatuek lehiakor eta errentagarri diren zonak hartzan dituzte eurentzat eta botere publikoen esku uzten dituzte ez horren errentagarri edo batere ez diren zonak.

Operadore handien logika horrez gain, gero eta arduragabeagoak diren jokamolde digitalak ditugu ere : norbanakoek etxeen egiten duten erabileraren % 80 streaming delakoari loturik da! Digitalak duen Co2 eraginak hegazkinlaritza zibilarena baino handiagoa da ! Birziklatzeari dagokionean, adibidez, automobilaren mundua digitalarena baino hamar aldiz hobea da. Argiki erran dezakegu : XXI. mendea ekodigital izanen da edo ororentzako digitala ez da jadanik izanen !

Erabilerak sakonki aztertu behar ditugu eta ekojarduerak eta neurri aritzea garatu. Herritarasun digitalerako heziketan azkarki inbestitu behar dugu ere, web ingurunean izpiritua kritikoa erabiltzearen alde, hala gazteen artean nola helduagoen artean ere.

Urte hondarrean, hirugarren leku berrien eramaileak bildu ziren Baigorrin. Barkoxe Biziren urraspidea, Bankakoa eta beste anitz ditugu, hau da, talde lekuak garatu nahi dituzten gizon-emazte belaunaldi oso bat dugu hor, herrixken erdi-erdian edo hiri auzoetan dinamika berriak bultzatu nahi dituztenak. Eta «taldeak», hemen, Euskal Herrian, badu indarra !



Conseil de Développement du Pays Basque Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua

Tous ces enjeux sont à découvrir dans la Contribution que le Conseil de développement du Pays Basque (CDPB)² a adopté en septembre dernier. De cette contribution est née l'idée d'un grand chantier sur le numérique de demain (en lien avec l'ANTIC et l'AUDAP, notamment). Nous avons rencontré le Président du Conseil départemental et le directeur du syndicat de la Fibre, en octobre dernier : nous leur avons proposé d'étudier avec eux les conditions de cette connexion prioritaire, ainsi que le travail de fond à engager auprès des jeunes collégiens.

L'avenir de nos communes et du développement équilibré du territoire se joue aussi dans les premiers pas de la fibre, et dans ceux de nos plus jeunes sur le net.

Jokagai horiek guztiak ikus litezke Ipar euskal Herriko Garapen Kontseiluak (IEHGK-CDPB)² iragan irailean egin zuen ekarpenean. Ekarpen horren emaitza da biharko digitalaren gaineko lanleku bat antolatzearren ideia (ANTIC elkartarekin eta AUDAP agentziarekin, besteak beste, elkarlanean). Departamentu Kontseiluaren lehendakariarekin eta Zuntzaren Sindikatuaren zuzendariarekin mintzatu ginen iragan urrian: haiekin batera lehentasuneko konexio horren baldintzak azter ditzagun proposatu genien, bai eta kolegioko ikasleen artean egin beharreko hondoko lana ere.

Gure herrien etorkizuna eta lurrardearen garapen orekatuarena zuntzaren lehen urratsetan jokatzen da ere, bai eta gure gazte-gazteenek sarean egiten dituzten lehen urratsetan ere.

²https://societecivile-paysbasque.com/wp-content/uploads/2019/10/192509_ContributionCDPB_numerique_CD25092019.pdf